



## Tolosaldeko Triatloi Taldea, txikia baina arrakastatsua

### AGIRRESAROBE ▶

Ibizan izan berri den  
Espainiako Txapelketan  
saio ona burutu du

### TALDEA ▶

«Lan handia  
eskatzen duen kirola  
denez», une honetan 8  
triatloilari baino ez dira ▶ 4



Aimar Agirresarobe Ibizan, Espainiako distantzia luzeko Triatloi Txapelketan. HITZA



Ekaitz Saralegi. m.s.s

### EKAITZ SARALEGI ▶ PILOTARIA

«Gogorragoa  
da pilotan  
aritzea baino  
porlanarekin  
jardutea»

Bihar ekingo dio  
amezketerrak Lau  
t'erdiko Txapelketari  
Irujoren aurka ▶ 6

### VILLABONA ▶

## Endika Abril Errebote Txapelketako finalaurrekoak gaur

Behar-Zanak 11:00etan jokatu du  
Villabonako Errebote plazan ▶ 5

### TOLOSA ▶

## Joxi eta Joxeanen omenezkoa, bihar

23 urte beteko dira erail zituztenetik  
eta lore eskaintza egingo dute ▶ 5

DR. JOSE  
GISASOLA  
D.M. Oligopeloides

OSTEOPATIA MEDIKUA

BIZKARREKO MINAREN  
TRATAMENDU NATURALA  
Lumbalgia, Hernia Diskala, Zistika  
Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia,  
Buruhezur-aurpegiko mina, ATM

Nafarroa Etorbidea, 11 / 20400 Tolosa (Gipuzkoa) / T 943 651 422

## UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

## Bonberenea



**G**isa honetako zutabeak zerbaiten inguruan gogoeta eragiteko erabili izan dira askotan. Zerbait salatze edo zerbaiten kritika egiteko askotan. Esker ona azaltzeko gutxitan. Minoria zer den ongi dakien herri honetako biztanle honek horixe bera egin

nahi du gaur. Zerbait goraiatzera nator. Esker onez gainera.

**Dinamika:** Gaztetxeen dinamika urrundik bizi izan dut. Gertu sentitu izan naiz beti haiengandik baina urrun samar egon naiz beti. Egia da. Baina gazte askoren dinamika dinamita modukoa da. Ez du surik eragiten baina suak adina indar dauka askotan. Ametsen bengalak su bajuak adina irau dezake.

**Doan:** Gaztetxe bat nora doan galdetuko dute askok. Doan, muxu truk, debalde... Horrela aritzen dira Bonberenea

ako gazte asko eta asko. Etxe erraldoi bat dute aterpe eta kabi baina euren lan egiteko gogo eta ilusioa ez da lau horretara mugatzen. Ez dira berrehun metro karratutan itotzen euren lan gogoak. Beti kanpora begira, eta kanpokoak etxeko sentiaraziz gozaten dute.

**Autogestia:** Gaztetxeen autogestia politiko askoren indigestioa izan daiteke, eta da. Horrekin dena esana dago. Nahiago nuke Bonbereneara bisita egingo balute; harrituta eta larrituta geratuko lirateke txukuntasunarekin.

**Eskaintza:** dena dute emateko, dena hartzeko prest. Dena irakasteko, dena ikasteko prest. Eske aintza, ordea, ez da eskaintzaren neurrikoa. Zuri-beltzeko gizarte honetan erabat exotiko dira hango pareta koloredunak. Eskulana desgertzeaz dagoela? Joan bertara eta premisa hori gezurtatzeko mila arrazoi aurkituko dituzu.

Elizako ateak beti zabalik omen daude. Jaungoikoaren etxean beti ongi hartua izango omen zara. Nik ez dakit horren berri gehiegi baina badakit Bonbereneara edo beste edozein Gaztetxetara joanez gero ateak beti barrualdera zabalitzen direla, eta han sartuz gero Jainkoa bezala sentituko zarela. Segi gogor!

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

MINUTU ERDIAN ▶

**Erronka berri bati ekitera doa Carlos Peña**

**IGERIKETA** ▶ Bihar ekin-go dio Carlos Peña igerilari tolosarrak erronka berriari. Kasu honetan, Argentinako Chiquita itsasoa igerian zeharkatuko du, ohi bezela bizkarrez. 100 kilometroko distantzia izango da denera, eta 5 egunetan egitea espero du. Uraren gatz kopuru handiari eta eguraldi aldakorari egin beharko dio aurre abentura honetan.

**Pasabaneke amore eman du Shisha Pangman**

**MENDIA** ▶ Hilaren 5ean saiatu ziren lehenengoz Edurne Pasaban eta Asier Izagirre tolosarrak Shisha Pangma, 8.027 metroko gailurra, zapaltzen. Haize indartsua eta hotza izan ziren atzera botarazi zituena, eta horixe gertatu zitzairen iragan ostegunean; oinarriko kanpamentura jaitsi beharra izan zuten, espedizioa bertan behera utziz.



Shisha Pangma. HITZA

**Ibarraldeko zortzi epaituei, zigor murrizketa**

**POLITIKA** ▶ Hainbat kale eraso egitea leporatuta Ibarraldeko zortzi gazte epaitu zituzten joan den astelehenean Espainiako Auzitegi Nacionalean. Behin behineko ondorioetan zigor eskerra handiak egin zituen Fiskaltzak, baina bi urtera murriztu zituen azkenean. Aurrekaririk ez dutenez, ez dute kartzelara joan beharko.

**Tolosako 38. Abesbatzen Lehiaketa**

**KULTURA** ▶ Hilaren 28an hasiko da Tolosako 38. Abesbatzen Lehiaketa, eta bertara joateko abonoak eskuratzeko bihar izango da azken eguna TEeren egoitzan, Emeterio Arrese kaleko 2. zenbakian, 17:00etatik 20:00etara. Abonoak eskuratzen ez dituztenentzat, hilaren 19tik aurrera sarrera solteak jarriko dituzte salgai.

IRITZIA ▶ PELLO ZABALA BENGOETXEA (IDAZLEA)

Gure Fernando gurea

**D**uela 200 urte, gure Fernando Bengoetxea amezketarra 42 urteko artzain zalu genuen. Ordurako lan franko egina, bai artzantzain, bai minatako meatzetan ere, eta auskalo zenbat agerraldi Tolosako perian eta bestelako bertsoaio eta ospakizunetan.

Gure Fernando deitu diot, halaxe deitzen diogulako sendikoa denari. Gure horrek sendiaren zabalera adierazi ohi du, era nahikoa naturalean. Badirudi oraingo gizarite honetan extuago eta gero eta familiar-gune ttikiagotan isolatuzera iristen ari garela: hor bai, hor gure horrek xoko extuago eta bakarragoa emango liguke.

42 urte beteberriak, bai, 1764ko urriaren 10ean jaio baitzen, Aduna aldean. Gurasoak artzain zebiltzanez, Txindoki inguruko belazeetatik, udazken eta neguaren usainetan, beheraka pentsatzen hasiak izango ziren. Bideanabar, 1764ko hartan, ama izateko zorian zena, beste urteetan baino goizxeago, itsas alderagoko neguko egontokira joango zen, agian senarra ardiekin Amezketa aldean utzita... nolani ere, dirudiane, Adunan zuten bizilekua baita ere eta harantz bildu zen ama.

Pernando izan zuen lehenengo, seme zaharrena: egokituko zitzaion umezaintzan lan franko egin beharrik, bere ondoren segidan etorriko baitziren, erreskada luzean, beste hamalau senide. Gurasoak artzaintzako lanbide sokamotzekoan loturik zebiltzanez, biak hala biak arkume zaintzan eta ardiamak jaizten saiatu beharra zutenean, etxean, seme zaharrenari utziko zitzaion txikiagoen ardura.

Argia gure Fernando, eta zorroztasun natural horrekin, azienda bakoitza bezala aldamenekoak ere, pertsonak banan bana sakonki ezagutzeko dohain aparta izan zuela dirudi. Eta baita aprobetxatu ere. Unibertsitateak urrun zeuden garai haieran: nahikoa *universitas* ukango zuen, urtero urtero, Txindokipeko eta Balerdipeko bitarte horietan, Ugarteko ordeka inguruetan, Orendain eta Abaltzisketako pendiza-goetan, hortxe izango baitzen bere unibertsio partikularra. Eta, noski, denetik ikasi, azkarrak hori baitu abantaila eta irabazirako, maisua duela barruan bere baitan: erri beti, oharri eta trebe, laister batean

agudotzeko pronto, buru eta bihotz bixkorta direnean, dena gordetzen eta ikasten baita.

Pernandoren pasadizoetan gelditu zaiguna gogoratuz, ni beti harritu nau bere portaera zabalak. Denen mesederako lau haizetarako isuria zuela, alegia. Eta dene-



kin zituela harreman korriente eta naturalak: alegiar odoleko Urreta apaizarekin zer esanik ez, honekin primeran zetorren, bai txantxetarako, eta baita, ezer behar zuenean eske joateko ere. Baina, lagun eta auzokoekin tirante bizitzeko arrazoi handirik ageri ez den bezala, zenbat aldiz azaltzen zaigu letradunekin ere ateraldi ponposoak botatzen? Eta iskrubau eta epaileekin?

Horiekiko zuen azkartasuna eskatuko nioke gaurko gure Euskal Herrira ekartzeko: bakebidean gora goazenean, ezer behar eta, horixe baita prexio premia egiten

**PERNANDO AMEZKETARRA**

«Beti harritu nau bere portaera zabalak; denen mesederako, lau haizetarako isuria zuen, buru azkarra eta bihotz argia»

diguna. Buru azkarra eta bihotz argia: batez ere, hainbat eta tamaina horretako epaiketa itxuragabeak lotzen gaituzten sasoi honetan. Madrileria joan-etorri etengabean dabiltzan 18/98ko lagunak, gure Fernando alai eta zuhurraren trebetasun puxka bat beharko dute.

Ez dut uste gaztelaraz oso airoso ibiliko zenik: baina ez zen mantzarra izango, Tolosa aldeko erdal kutsuko lagunak ere izan behar zituen eta... Ibarretxe gureari ere lagundu beharko dio oraintxe epaileen aurrean: orain 200 urte hainbeste lagunek gure Fernando testigu hartzen zuten bezala, ez ote luke beharko Ibarretxek berak ere horrelako epaimolderen bat. Babarrun ale egosiak baratzen sartzen egon zela esanez, izerdi patsetan, abarka eta brusa, epaiketara presakako imintziotan azaldu zenean bezala... hain antzerakoak iruditzen zaizkit oraingo epai gehienak eta ordukoak: aspaldi jandako bi arrautzen prezioa, handik hamar hilabetera, milaka pezeta kobratu nahian, arrautz haietatik ateratako txita eta oilandak eta eman omen zitzaketen dozenaka arrautzak kobratu nahian... zera! Pernandok eguerdiko babarrun egosiak baratzen aldatzea bezala!

Zer esango ote lioke Fernando gureak De Joanaren epaileari? Bi artikuluxka horrenbestetarako badira, nolako bertsoak ez ote lizkioke aterako epaile horri, De Joanari kaos galanta eta bere ahaide eta familiarakoei horrenbeste buruhauste sortu dizkien *ixkrubau* gaiztoari! Txirritak gaztelera jakin ez eta latinez ikasi beharko zuela? Gure Pernandok dantzatuko zituen euskeraz bezalaxe elizan ikasitako latinak eta Tolosako kaleetan entzundako erderakada sultu haietako bat edo beste ere!

Gure Fernando hain etxekoa, Larraitz eta Amezketatik barrena, Ugarte eta Alegi, Tolosako eta Adunak gure izan duguna, nik uste euskaldunak den zoko guztietakoa ere badela dagoeneko, *Pernando gurea* egin da daukagula jada. *Gure Fernando, Pernando gurea* suertatu baitzaigu. Ea bere trebezia ernai, axkar, fin eta zalu horretatik ematen digun, ondo beharrean gaude eta! Euskeraz gabiltzanok eskertuko diogu, eta, agian, euskera ikasteko nagi diren batzuk ere bai. Epaille zabarrak, ez dut uste!

DATUA ▶



**20.000**

**Kilo babarrun.** Kopuru hori biltzea espero dute aurten Tolosako Babarrun Kofradiakoek. Asteartean bildu zituzten lehen aleak, eta «uzta atzeratu den arren, kalitatez ona» izango dela esan zuten.



**ASTEASU:** Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.000.000 pztz.  
**TOLOSA:** 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pztz.  
**TOLOSA:** Zumalakarregi. 100 m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Bista ikaragarria.  
**VILLABONA:** Arroa. Pisu altua igogailu eta berogailuekin. Berritua eta altzariz hornitua. Ganbara ere badu. 49.000.000 pztz. Interesgarria.  
**VILLABONA:** Larrea. Pisu altua igogailuekin. 37.500.000 pztz.  
**VILLABONA:** Eraiki berria. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta bi bainugela. Altzariz erabat hornitua. 51.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** 2 logela. Kalitateko materialak. Berogailua eta igogailua. 44.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** 2 logela. Hormigoiez eraikia. Erdi eraberritua. Terraza. 36.000.000 pztz.  
**VILLABONA:** Eraikuntza berriko apartamentua. Bikaina.  
**ZIZURKIL:** Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.  
**ZIZURKIL:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Terraza ederra. Igogailua. 41.500.000 pztz.  
**ZIZURKIL:** Aurrera plaza. Igogailua eta berogailua. Terraza. Berritua.

**Errota 3 - Villabona**  
**0latzinmo@euskalnet.net**  
**943 243 118 - 635 706 728**

TOLOSA ▶ TRIATLOIA

# Tolosaldeko Triatloi Taldea, bizirik baina triatloilari bila

Gaur egun Tolosaldeko zortzi lagun aritzen dira Tolosaldeko Triatloi Taldean; gustura entrenatuko luketen triatloilari berrien bila dabilta

MADDI SOROA

Urte mordoa da Tolosan Triatloi taldea sortu zela. Kirolari asko eta indar handiko taldea zen garai hartan, Dina Bilbao bezalako kirol entzutetsuak izan zirelarik bertan. Denboraren poderioz, ordea, hasierako talde hura desagertu eta Tolosaldeko Triatloi Taldea sortu zen ondoren. Orduan ere 25 lagunetik gora ibili zen buruberrak entrenatu eta probetan parte hartzen.

Gaur egungo egoera, ordea, oso bestelakoa da. Kirol gogorra eta osoa izaki, guztiaren gainetik sakrifizioa eta dedikazio handia eskatzen duen kirola baita triatloia. Hori dela eta, une honetan 8 triatloilari daude Tolosan: Aimar Agirresarobe, Egoitz Zalakain, Iñaki Intsausti eta Edu Gonzalez aurtengor gogor aritutakoak; baina, baita Xabier Beldarrain, Jose Luis Zabala, Amaia Azibar eta Imanol Mendikute ere.

Gutxi izanagatik, ordea, ez da kalitate txarrekoa Tolosaldeko taldea. Aitzitik, kalitate handiko triatloilariak dira tolosaldekoak. Esaterako, Aimar Agirresarobe Espainiako distantzia luzeoko Txapelketan izan da pasa den



Egoitz Zalakain eta Aimar Agirresarobe, Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideak. HITZA

igandean Ibizan eta sailkapen ona lortu zuen gainera. Gogoratzeak da Egoitz Zalakain kasua ere, izan ere, Hawaien baita egunotan Munduko *Iron Man* proban parte hartzeko helburuarekin.

Tolosaldeko Triatloi Taldeak punta puntako triatloilariak dituela argi dago, baina, taldea lagun gehiagoren bila dabil azkenaldian, eta herritarrak animatzen dituzte parte hartzera.

AIMAR AGIRRESAROBEN ▶ TRIATLOIARIA

## «Denboraldi borobila egin dut aurtengoan»

Ibizako Santa Eulalia del Rio herrian izan zen Aimar Agirresarobe tolosaldeko pasa den igandean. Espainiako distantzia luzeoko Triatloi Txapelketan hartu zuen parte. 416 triatloilarietatik 56. postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean, 44. berriz, Espainiakoan.

**Zenbat denborako sufrimendua izan zenuen?**

Disfrutatu egin nuen proban eta ez zitzaidan luze egin. Ordu eta hamaika minututan egin nuen 5 kilometro igerian, 3 ordu eta 21 minutu pasa nituen 120 kilometro bizikletan aritzea, eta 2 ordu eta 31 minutu 30 kilometrotan korrika egiteko. Guztira, 7 ordu eta 7 minutuko denbora egin nuen.

**Esperezia ona?**

Abentura bila joan nintzen Ibizara eta horixe aurkitu dut, abenturazko esperientzia izan da. Euskal Herriko zirkuituan oso ongi aritu naiz eta distantzia luzean probatu nahi nuen. Gainontzekoen erreferentziak ikusita eta distantzia luzeoko proba izanda, apur bat beldurtuta joan nintzen, baina, asko entrenatu dut eta gustura nago emaitzarekin.

**Euskal Herriko zirkuituan ongi beraz?**

Denboraldi borobila egin dut, oso gustura nago. Esprintetan —750m igeri, 25km bizikletan eta 5km korrika— laugarren eta zortzigarren postua lortu nituen Barakaldon eta Gortzen. Olinpikoan, berriz —15.000m igerian, 40km bizi-

## Egoitz Zalakain Hawaien

Hawaien da egunotan Egoitz Zalakain triatloilari tolosaldeko. Triatloian modalitate biko gogorra den *Iron Man* Munduko Txapelketan hartuko baitu parte. Hilaren 21ean burutuko den proban, 3 kilometro eta 800 metro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilome-

troko maratoian korrika egin beharko ditu Zalakainek.

Taldekiek azal dutakoaren arabera, fisikoki oso forma onean dago Zalakain baita Munduko Txapelketan aritzeko ilusio handiarekin ere. Itxaron egin beharko da bere emaitza jakiteko. ◀

TOLOSA ▶

## Zerkausi berriuan egin dute azoka lehenengo

Zerkausi berriaren eraginez ohi baino jende gehiago izan zen azokan

PABLO ALBERDI

Animazio handia izan zen atzo Zerkausiko estreinuan. Eraikuntzak interes handia sortu zuen ohizkoen artean, eta normalean etortzen ez direnak ere etorri ziren.

Gainera, saltzaileek eskaintza izugarria ekarri zuten estreinurako, oso giro polita eta animosoa sortuz. Eguraldia ere lagun izan zen.

Aipatzekoa da atzo ikusitako ondoko eta perretxiko ugartasuna. Nahiz eta espezieetan joan den astekoa aberasgarriagoa izan, egundoko kopurua izan zen salgai. 800 kilo onddo baino gehiago, 100 kilo ziza hori, eta nikalo asko ere saldu baitziren.

Berdura plazan aurreratu zigitenez, datorren astean Santu Guztien apaingarriko landareak saltzen hasiko dira, hala nola, krisantemoak, zentroak, etabar.

AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Ziklamena	5,50	-
Dhalia	3,20	-

Bertako produktuak		
Onttoa	7,00	18,00
Ziza horia	18,00	-
Ardigazta	14,00	18,00
Behigazta	7,00	7,50
Produktu ekologikoak		
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00
Arraultzak	3,50	-

iragarki laburrak ▶

**GALDUTAKOAK**

**Haurrak eramateko motxila.** Duela bi aste Vande markako haurrak eramateko motxila bat galdu zen Urtoko atsedean lekuan. Inork aurkitu izan balu, dei dezala 655 72 18 79 telefono zenbakira.

**LANA**

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635745291era.



HITZA



VILLABONA ▶ ERREBOTEA

# Endika Abril-eko finalaurrekoak gaur

Behar-Zanakoak Luzeaz Gazte Frantziako txapeldunen aurka ariko dira Villabonako Errebote plazan, 11:00etan

NAIARA GARZIA

Gaur, Endika Abril Errebote Txapelketako finalaurrekoak jokatu dituzte. Oartzunen, Uztaritzeko Kapito Harri eta Hazparneko Noizbait taldeak lehiatu dira. Villabonan, berri, 11:00etan, Behar-Zanakoak Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazteren aurka. Azken hauek egungo Frantziako txapeldunak dira eta aurreko urteko txapelketako irabazleak.



Behar-Zana taldekoak errebote partida batean. HITZA

Erreboteak Iparraldean oihartzun handiagoa izan arren, hau da Hego Euskal Herrian jokatzeko txapelketa bakarra. Garai batean nazioartekoa zen, baina Endika Abril pilotaria hil zenean bere izena jarri zioten, errebotearen alde egin zuen lanarengatik. Hegoaldeko plazak Iparraldekoak baino txikiagoak dira eta horixe da txapelketa honen berezitasuna: tamaina. Horregatik plaza txikiko txapelketa ere deitzen zaio.

Txapelketa oso ezaguna ez izan arren, 37 urte inguru daromatza. Aurtengoa abuztuko azkeneko igandean hasi zen eta osotara 7 taldek hartu zuten parte, 3 Hegoaldekoak eta 4 Iparraldekoak. Joxan Jauregi errebote zalearen ustez, «jende gutxi joaten da partidak ikustera, ulertzeko zail xamarrak baita; ea gaur jendea frontoia betetzera animatzen den».

TOLOSA ▶

## Joxi eta Joxean erail zituztela 23 urte, bihar

Euren omenezko Benta Haundiko monolitoan lore eskaintza egingo dute



Monolitoa. MARTA SAN SEBASTIAN

M.SOROA

Joxean Lasa eta Joxi Zabala tolosarrak GAL erakundearen eskuetan bahitu, torturatu eta hil zituztela 23 urte beteko dira bihar. Hori dela eta, omenaldia egingo dute bihar, 19:30tik aurrera, Benta Haundin, euren omenez jarritako monolitoaren aurrean. Ekitaldian aureskua dantzatuko dute eta txalaparta saioa ere izango da. Horretaz gain, lore eskaintza egingo dute, eta hitzaldia eskainiko dute. Modu horretan izango dituzte gogoan Lasa eta Zabala.

LEITZA ▶ PILOTA

## Bengoetxea gailendu da Capellanen aurka

Errioxarra ongi hasi baina nekatu egin zen

N. GARZIA

Atzokoa orokorrean ez zen pilotazaleentzat gozatzeko aukerako jaialdia izan. Erritmo biziz hasi ziren, baina hasieran mantendu zuten oreka Oinatzek apurtu eta zulo handia ireki zuten. 8-9. tantoa erabakiorra izan zen, leitzarrak tanto gogorra egin eta Capellanek behera egin baitzuen. Ez zen gehiago errekupeatu.

Egindako 2 entrenamenduetan gero, fisikoki oso ongi dagoela argi utzi zuen Bengoetxeak. «Fisikoki modalitate hau oso gogorra da, gaur ere paliza handia hartu dut ez badirudi ere».

«Partiduz partiduz» begiratzeari nahiago duela esan arren, atzokoa irabazi ondoren aurrera doa Bengoetxea lehiaketan eta hurrengo astean Eugiren kontra ariko da.

TOLOSA ▶ KULTURA

## Tai-chi eta Photoshop ikastaroak EParen eskutik

N. GARZIA

Tolosako Helduen Hezkuntzako Ikasleen Elkarteak (HHI-EPA) tai-chi eta Photoshop ikastaroa antolatu ditu udazken honetarako. Lehenengoak osasuna eta gorputz barruko oreka mantentzea du helburu eta edonork parte har dezake. Photoshop ikastarotan, berri, ez dira informatika hastapenak emango, argazki digitalen manipulazio eta di-



Tai-chi egiten. HITZA

seinu grafikoa izango baitira ikasgai.

Informazio gehiagorako edo izen emateko 943 67 26 60 zenbakira deitu, edo Tolosako HHiren egoitzara (Igaralde kalea 23) joan beharko da.

3 megako Banda Zabala + Deiak Telefono Finkoetara 24 Orduz hileko telefono-kuota barne

Proba ezazu etxean 3 hilabetez hilean **1€** ordainduta\*

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa hilean beste 10 € bakarrik ordaintuta.

\*Sustapen honek 2006ko abenduaren 31a arteko kontratuzentzat balio du. Sustapenaren epa amaitu ondoren, produktu guztiak kontratuzentzakoak dira, bezeroak besterik jakinarazten ez bada. Telefono finkoetara 24 orduz egindako deiak, Aholkari Tarifa Finkoaren baldintzen arabera. Ez dira sartzen nazioarteko deiak, tarifa gehigarriak, sare erdimentsua eta mugikorrak. Gehienez, hilean 5.000 minutu. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15 €, Aholkari Tarifa Finkoa 13 € eta Internet 3 Mega 39 €. Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hiru hilabeteetan balio du, Kontusaltu sustapen honen baldintzak.

San Francisco, 19  
Tolosa  
☎ 943698126

**Euskaltel** -en Banatzaile Ofiziala

EKAITZ SARALEGI ▶ PILOTARIA

# «Porlanarekin jardutea pilotan jokatzeari baino gogorragoa da»

Atariko partida irabazi ostean, bihar ekingo dio Lau t'erdiko Txapelketari; aurkari zaila izango dela badaki ere, ilusioa egitean dio Irujoren aurka aritzeak

IMANOL MAGRO (Berria)

Korrika saioa egin ostean joan da Ekaitz Saralegi (1979, Amezketa) Tolosako Beotibar pilotalekura. Kantxan Oier Mendizabal eta Alberto Beloki jo eta su dabilta lanean, Anizeto Lazkanoren aginduetara. Amezketako aurrelaria jator askoa da, bizkor hitz egiten du, eta aurreko igandean Mañarian jokaturiko partida osteko pasadizoekin girotu du elkarriketaren hasiera. Bihar, Tolosako Beotibar pilotalekuan ekingo dio Lau t'erdiko Txapelketari Irujoren aurka.

**Lehenbizikoa, garrantzitsuenak: zer moduz dituzu eskuak orain? Atarikora minez joan zinen.**

Nahiko ondo daude, zurda bat handituta neukan eta orain hobeto dago. Esainen aurka jokatu nuenetik masaje pare bat hartu dut, entrenamendu on bat egin eta partida bat jokatu dut, eta nahikotxo egin dute hobera.

**Eta sasoiak? Ez duzu lau t'erdiko lan berezi askorik egiteko aukerarik izan.**

Ondo nago, joko onarekin. Udatik sasoi onean nago, eta oso ondo prestatzeko aukerarik izan ez dudan arren, ez da hain larria, aurrelariontzat beti delako errazagoa lau t'erdiko-ara egokitzea.

**Atarikoaren aurretik ez zenuen lau t'erdikoa jokatzeko itxaropenik. Zergatik?**

Iaz hilabete lehenago esan zidaten lau t'erdikoa jokatu behar nuela, eta aurreko, ezer esaten ez zidatenez, ez nuen jokatzetik espero. Baina, tira, azkenean, sanmateoetan Esainen aurka jokatu behar nuela esan zidaten, eta gogo onez hartu nuen albistea, nahiz eta prestatzeko denborarik ez izan.

**Atarikoan aurkako 16-21koa altxatu zenuen; argi dago lau t'erdikoa jokatzeko gogoia zenuela.**

Bai, noski! Behin han egonda, eta Irujoren aurka aritzeko aukerarekin, neure buruari kale edo bale esan nion. Azkenean, atariko leon-kastillo izan zen, eta nik zortea alde eduki nuen. **Bigarren aldia duzu txapelketan; iazko eskarmentua aberasgarria izango zaizu.**



MARTA SAN SEBASTIAN

Hala uste dut, iazkoa sari polita izan zen, eta aurtengoa ere berdin ikusten dut, atariko irabazi behar izan dudan arren. Niretzat Juan Martinez de Irujoren aurka aritzea saria da.

**Nolako partida espero duzu?**

Oso gogorra, baina ez luzeegia. Berak asko arriskatu duela uste dut, eta baita nik ere. Gauzak ondo iritertzen badira, ondo, eta gaizki iritertzen badira, beste batean izan beharko du.

**Irujok jokatu du azkenean, baina jokatu ez balu ziurrenik Eulateren aurka egin beharko zenuke. Zein nahiago duzu?**

Irujoren aurka jokatzeko aukera gutxi izango ditut, eta, horre-

gatik, nahiago dut haren aurka aritu. Eulate pilotari handia da, eta lagun ona dut, baina egun, Irujo da pilotari onena eta ilusioa egiten dit bere aurka aritzeak. Halere, Eulatek jokatu balu ere, ez litzateke partida erraza izango. Iaz Oinatz Bengoetxea asko estutu zuen Labin.

**Bihar aurka galanta da.**

Bai, Irujoren aurka partida polita jokatzeko garrantzitsua da niretzat. Emaitza edozein izanda ere, partida ona jokatu nahi nuke, jendearen aurrean ondo gelditzea.

**Bihar arratsaldean Amezketa erdia jaitsiko da Tolosara.**

Hasieran Bergaran izango zela zabaldu zuten, eta autobusa

antolatzeko asmotan zeuden. Orain, Tolosara gehiago etorriko dira, nahiz eta astelehena izan. Kalean, askok esan didate joan behar direla. Ni Irujoren aurka ikusteko gogoia dut. Ez dakit zenbaiterainoko itxaropena duten, baina, tira, eskertzekoa da. Egia esan, Irujo jokatzeko ikustearren bakarrik merezi du etortzea.

**Udan ozen entzun da zure izena; estelar batzuk izan dituzu eta maila ona eman duzu. Gustura egindakoarekin?**

Bai, enpresak aukera pare bat eman dit eta baliatu dut. Zarautzen Olaizola I.aren aurka partida ona jokatu irabazi nuen, eta gustura nago egindako udarekin.

MARTINEZ DE IRUJO

«Ilusioa egiten dit Irujoren aurka jokatzeko; saria da hori niretzat, bera baita pilotari onena»

LAU T'ERDIKOA

«Iaz hilabete lehenago esan zidaten jokatu nuela, eta horregatik ez nuen espero lau t'erdikoa jokatzeko»

BINAKAKOA

«Oso zaila da aurrelari postu batekin egitea, lau t'erdiko onak jokatu ere; ez dut horretan pentsatu nahi»

**Behin muturra sartuta, orain zer egin behar duzu beste koska bat igotzeko?**

Partida handi on pare bat jokatzeko eta irabazteko. Orain nire maila erakusten ari naiz eta ea aukera on gehiago ematen dizkidaten.

**Lau t'erdikoan txukun aritzea primerakoa litzateke.**

Bai, garrantzitsua litzateke, baina aurkari zaila egokitu zait. Lehen esan dut, behin Esain kanporatuta hau saria da niretzat.

**Asegarcen, Binakako Txapelketan beti egoten da aurrelari postu bat kolokan... Ala hori gehiegi eskatzea da?**

Bai, hori oso zaila da; nire aurretik Leiza, Koka eta Unanue daude eta lau t'erdiko onak jokatu ere, ez dut horretan pentsatu ere egin nahi.

**Pilotari ez ezik, igeltsero ere jarduten omen zara.**

Bai, barneko lantxoak egiten. Koadrilako lagun bat igeltseroa da, eta pilotan ondo aritzeko berarekin hasi behar nuela esan zidan behin txantxetan, lan asko zuelako. Dagoeneko urte batzuk daramatzat eta asko ikasi dut. Goizez aritzen naiz harekin, eta ez dut entrenamenduekin bateratzeko arazorik izaten.

**Zein lanbide da gogorragoa?**

Pilotan aritzea errazagoa da igeltsero ibiltzea baino. Porlanarekin jardutea pilotan aritzea baino gogorragoa da. Igeltsero jarduteak asko lagundu dit buru aldetik, denbora ondo baliatzen dut eta bizitzan eskarmentua hartzeko lagundu dit. Askotatik eskertzeko nagusiari, eta pribilegiatutzat ikusten dut neure burua, partida edo entrenamendua dudanean ez didalako inolako arazorik jartzeko.

TESTIGANTZA ▶

JOXEMI SAIZAR

**M**ila bederatziehun eta hogeita hamaseiko Gerra zibilean alde nazionalean piloto bezala borrokatu zuen pertsonaia dakargu gaur sail honetara: Jose Ramon Kalparsoro Perot (Tolosa, 1908). 98 urte izateko buru argia dauka, baina egun bizi den erresidentzian, Madrilen, pasa den denbora luzearen ondoren nekatuta agertzen da. Horregatik, berak esandakoez gain, bere bizitzari buruz duela urte gutxi idatzitako *Jose Ramon Calparsoro. Un piloto español en la Legión Condor* liburutik ere hainbat informazio erabili dugu erreportaia osatzeko.

San Frantzisko 18an jaio zen Kalparsoro, papergileen familia batean. Aita Ildefonsok izen bereko paperfabrika zuen El-duan eta ama Perot tela metalikoen fabrikako nagusiaren alaba zen. Aitak Peroten egin zuen lana gerente gisa, baina matri-monioa banandu zenean utzi egin behar izan zuen. Bederatzitzi urterekin gertatu zitzaion gurasoen banaketa, 1918an, eta orduan bera eta bere anaia Rafael Urduñako jesuitengana bidali zituzten interno gisa. Han, besteak beste, Jose Antonio Agirre aurreneko lehendakaria eta Manuel Valdes Falangeko fundatzailea izan zituen ikaskide, bilbotarrak biak. Aurretik, Tolosan bertan, moja frantsesetan, Atodo jauregian, egin zituen lehen ikasketak eta batxilergoa Eskolapiotetan.

Bilboko Ingeniaritza Eskolan ez zuten onartu 1925ean eta hurrengo urtean Lausanara (Suitza) joan zen ingeniari-tza ikastera. Bi urte eginda Alemani- an papergintza espezialitate- a ikastera joan zen Weimar- ren, horretarako aurretik Mannheimgo Zelstoff Waldof enpresan langile modura arituz. Gero Weimerrera itzuli zen ikasketetak bukatzera.

«Paper ingeniari-tza ikasita, El-duako papeleran gelditu nahi nuen, baina aitak bigarre- na nintzenez nire lekua ez zegoela han esan zidan. Horregatik alde egin nuen. Aitona frantsesaren paperfabrikara joan nintzen eta hark nire lekua Espainian zegoela esan zidan. Leku guztietatik bidali ninduten. Kasualitatez, Peroten gerente zegoen Jose Maria Agirre Lizardi idazlea hil egin zen eta orduan bere lekuan sartu nintzen. Jose Mari Olarreaga, alkate izango zen Enrique Ortiz de Zarate ere han aritu ziren lanean. Katalan asko zeuden. «Zabaleta hojalateroa CNTko ordezkaria zen eta nire langile- entzat baldintza hobek eskatzen etorri zitzaidan. Berak baino baldintza hobek zituz-



Jose Ramon Kalparsoro Madrilen bizi den erresidentzian. JOXEMI SAIZAR

## Kalparsoro, tolosar bat Legion Condor-en

Gerra Zibilean 400 zerbitzu baino gehiago egin zituen, baina Gernikako bonbardaketan ez zuen parte hartu

tela erantzun nion. 'No es tan fiero el leon como lo pintan' erantzun zidan».

### Familia EAJren inguruan

Itzulerietan eskiatzera alde egiten zuten Frantziara. «Neska bat ezagutu nuen han, pilota zen eta ea zergatik ez nintzen ni ere egiten. Aurretik ibilia nintzen hegazkinean eta Gipuzkoako Aeronautika Elkarte-ko kidea nintzen. Biarritzera joan, apuntatu eta bazkide egin nintzen 1936an. Erraza izan zen ikastea. Denetatik daki kirolariak. Pilotok behar-ko direla esan nion behin aitari, ezer jakin gabe. Handik sei hilabetera beharrezkoa izan nintzen», aipatzen du. Aralar-ko Adiskideen elkarte-ko eta Ski Club Tolosanoko kide izan zen.

Familia karlistako zen, baina aita batzokikoa zen eta EAJko buruzagiak lagunak zituen. Bera ere inguruan ibili zen, baina ez zen afiliatu. Behin Azpeitira Alderdi Egunera austriar batzuen itzultzaile gisa joan zen. «Etxera itzuli nintzenean

esan nion aitari gaizki zegoela alderdia, kaleak irabazi eta botako zituela abertzaleak».

### Perot-eko greba 1936an

1936ko ekainean Peroteko langileek greba hasi zuten. Bizitza arriskuan zegoela esan zioten eta Donostiara joan zen. *Euskadi Roja* aldizkarian «perro hitleriano» deitu zioten. Uztailaren 16an prentsan ohar bat agertu zen esanaz Peroteko langileek tailerra hartu egingo zutela 20an. Uztailaren 18ak Donostian harrapatu zuen Kalparsoro, Gobernu Zibileraren enpresaren egoera salatzen joan zenean jakin zuen altxamendua izan zela. Handik Biarritzera joan zen Joaquin Labaien lagunarekin, piloto ikasketak egiten ari zen lekura, baina ezin izan zuten itzuli, eta Berlinen Olinpiar Jokoen inaugurazioan izan zen, Jesse Owens eta Hitler bera gertutik ikusi. «Gerra bukatu zenean,

Hitlerren aurrean desfilerako gonbidatuta nengoela jakin nuen, baina beranduegi esan zidaten. Weimarrera askotan etortzen zen Hitler», esaten du.

Tolosa abuztuaren 11n erori eta handik gutxira itzuli zen Kalparsoro Alemani- atik etxera. Lantegira joan eta bulegoa hankaz gora ikusi zuen. Berehala erreketetaldetatean sartu zen, Tolosako kaleetan guardia eta zainketa lanak egiten eta Serapio Altunaren erreketet brigadaren buruzagia aritu zen.

### Hegazkinerako boluntario

Donostia erori ondoren, irailaren 15ean, boluntario gisa aurreratu zen Lasarteko aerodromoan bonbardero piloto izateko. Oso ordu gutxi zituen, baina onartu zuten. Agoncillora (Logroño) bidali zuten eta handik Sevillara. 1936ko azken egunean Zaragozara bidali zuten eta 1937 osoan Heinkel 46 hegazkinean aritu zen teniente bezala Belchite, Alcubierre, Alfambra eta Teruelgo erasoetan 1938ko otsailera arte.

Martxo bukaeran Legion Condorrera destinatu zuten, «alemana jakiteaz gain, hegan egiteko moduagatik». «Emazteari interprete nintzela esan nion, ez nuela hegan egiten». Bere txostenetan ehiztari izateko oso ona zela zioten, baina berak dio eper bat ere ez zuela hiltzen. «Gernikara ez joateko zorte handia izan nuen. Bidaliz gero, zer egingo nuke? Apiril-ean sartu nintzen Condorren eta Gernikakoa apiril-ean izan zen. Bonbak bota beharrak mina ematen zidan», dio.

Ebroko erasoaldi handia hasi zenean han zen. 1939an Valencia, Vall de Uxo eta Carriñenan aritu zen, gerra bukatu arte. Azken zerbitzua otsail-ean egin zuen. Orduan jakin zuen bere emazteak hegan egiten zuela. «Koronel buruarengana joan eta Armadan zer eginik ez nuela esan nion, lana egin behar nuela, papera egin behar nuela». Guztira 400 zerbitzu baino gehiago egin zituen, 1.177 ordu guztira. Arazo batzuk izan zituen tartean, bala eta metraila arrastoekin itzultzea, eta behin arazo batzuen-egatik hegaldia luzatu egin behar izan zuten eta gasolina lur hartzerakoan bukatu zitzairen.

### Gerrara «askatasunagatik»

Gerra amaitsu eta gero Burrian (Castello) eta Tetuanen (Maroko) paperfabrikak ireki zituen. Perot enpresan idazkaria eta lehendakari izan zen berri- ro, Papelera Españolak Wanger enpresa alemanarekin akordio bat lortu ondoren. Nekazaritzan ere aritu zen Madril inguruko herri batean. Lana besterik ez duela egin dio irribarrez. 60 urterekin jubilatua egin zen, «bizitzeko».

Bizitzan zehar egindako guztia «bere askatasunagatik», bere burua babestegatik egin duela dio. Langileen mehatxua jaso zuen eta «erraietatik» atera zitzaion aliatatzea, «zakurra bezala» hiltzen ez uzteagatik. Beste erremediorik ez zuela dio. Orain ere gorroto ditonek hilko luketela dio. «Nik beti esaten dut: niri ETAkoek San Blasen hartuko naute».

Gerra ondoren gutxitan izan da Tolosan. Aita hil zenean, 1950ean eta anaia Rafael hil zenean, duela sei urte. «Ezin nuen kanposantuan sartu, autobia egin zutelako. Tolosa asko maitsu izan dut, tolosar bezala gutxi irabazten naute, baina bidali egin ninduten. Ez zitzaidan ezer galdu Tolosan».

### OHARRA ▶

Elkarrizketa osoa gure webgunean ikus dezakeuz.



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 15a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeako, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Tolosa.** Joxi eta Joxeanen eraiketaren 23. urtemuga izango da bihar, eta hori dela eta, ekitaldia egingo dute 19:30ean Benta Haundiko euren omenezko monolitoaren aurrean. Lore eskaintza egingo dute, aurraskua dantzatzuko dute ondoren, txalaparta saioa izango da, eta horren ostean hitzaldia.

### KIROLAK

**Villabona.** Endika Abril Errebotte Txapelketako finalurrekoak jokatzeko dituzte. Oartzunen, Uztaritzeko Kapito Harri eta Hazparneko Noizbait taldeak lehiatuko dira. Villabonako Errebotte plazan, berriz, 11:00etan Behar Zanako taldeak Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazteren (egungo Frantziako txapeldunak) aurka jokatzeko du.

### ZINEMA

**Tolosa.** *El viento que agita la cebada* filma ikusgai, Leidor aretoan, 19:30ean, 4,5 euroren truke.  
**Tolosa.** *Garfield 2* gaztekoentzako filma ikusgai, Leidor aretoan, 17:00etan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leizta.** Larraia, MI. Elbarren, 95. 112  
**Tolosa.** Azpiroz, ML. Amaro azua, 9. 943 67 51 18.

#### Bihar

**Leizta.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

### IRRATIA

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**

**Gaur**  
10:30-13:00. *Hitza hegan* magazina (errepikapena).

**Bihar**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAren erreparazioa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xoroxin irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



## Sorkunen birako azken kontzertua

**TOLOSA** ▶ Sorkunek mikrofonoa eskuan hartu eta beste behin ere, zertarako gai den erakutsi zuen herenegun. Taldekideen laguntzaz, indarrez beteriko kontzertua eskaini zuen Bonberenea itxura berri-tuan. Azken diskoko kantak, gehienak: Kashbad garaiko kantentzako izan zuen tokirik, ordea. Oroimenean atzera egin, aseturik utzi zituen bertarututakoak. HITZA

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Iker Garmendia Ruiz de Egitaz. Bihar 5 urte. Zorionak familiako partetik.



**URTE ASKOAN**  
Hasier Zaldúa (Tolosa). Bihar 4 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Agustín eta Ione. Etzi zilarrezko ezteiak. Zorionak! Neska bixirindularien eta gurasoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Bernarda Mujika (Amezketeta). Gaur 82 urte. Jarraitu die bezain polita izaten. Irereren eta Ainhoaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Julen Bereziartua (Baliarrain). Bihar urtebete. Zorionak Baliarraingo eta Adunako familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Irati (urriak 16) eta Igor (irailak 21). Zorionak gure potoleoi aitaboren eta amaboren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...